



**INGURUMENENKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN ZERBITZU
ELEKTRIKOEN ERABILERA ARAUTZEKO ETA EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN ERREGISTROA
SORTZEKO ETA ARAUTZEKO DEN IRAILAREN 25EKO 183/2012 DEKRETUA
INDARGABETZEKO DEKRETU-PROIEKTUA ARAUTU AURRETIKO KONTSULTA
PUBLIKOA.**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretua indargabetzeko Dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea aurreikusita dauka.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. 1. artikulua ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publikoa bideratuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Kontsulta horretan jasoko da etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek duten iritzia honako puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestearen beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, xedapen arautzaile orokorrak egiteko prozedura ezartzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide horietan zehaztu zenez, xedapen orokorra tramitearen sustatzailea den zuzendaritza-organo edo -zentroak bete ahalko du aipatutako aurretiko kontsultaren tramitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taularen bidez.

Aurrekoa betez, eta hura egin aurretik, eranskin bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jaso eta argitaratuko den informazioari buruzko iritzia ematera gonbidatzen dira herritarrak idatzi honen bidez.

Vitoria-Gasteiz, sinatu den egunean.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

IVAN PEDREIRA LANCHAS
(sinadura elektronikoa)





INGURUMENENKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN ZERBITZU ELEKTRIKOEN ERABILERA ARAUTZEKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN ERREGISTROA SORTZEKO ETA ARAUTZEKO DEN IRAILAREN 25EKO 183/2012 DEKRETUA INDARGABETZEKO DEKRETUA-PROIEKTUA EGIN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA.

<p>EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Behin-behinean bertan behera utzi zuen abenduaren 23ko 468/2013 Dekretuak, irailaren 25eko 183/2012 Dekretua behin-behinean bertan behera uzteko dena, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretua. Azken arau hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 20an, eta hurrengo egunean indarrean jarri zen.</p> <p>Aipatutako irailaren 25eko 183/2012 Dekretua soilik kasu gutxi batzuetan aplikagarria denez, eta gaur egun araudi berriagoa dagoela ikusirik, non Herri Administrazioen aldetik teletramitatzeke betebeharra arautzen den, eta kontuan izanda INGURUNET zerbitzua abiarazten doan heinean, irailaren 25eko 183/2012 Dekretua espresuki indargabetzea nahitaezkoa da, administrazio elektronikoa buruzko araudia aplikatzerakoan disfuntzioak ekiditeko.</p>
<p>EKIMENA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA</p>	<p>Aipatutako irailaren 25eko 183/2012 Dekretua gaur egun dagoen behin-behineko bertan behera uzte egoerak, segurtasun juridiko eza sortzen du erabiltzaileengan, eta horri aurre egin behar zaio, dagozkion baliabide juridikoak hartuz, zeintzuek argitu beharko dute araua aplikatzeko gaitasuna, bai eragile pribatuei dagokienez, baita Herri Administrazioari berari dagokienez ere.</p> <p>Dena dela, beharrezkoa da azpimarratzea 21/2012 Dekretuaren 12. artikulua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, xedatzen duela Administrazio Publikoek bermatu behar dutela interesdunek euskarri edo elektronikoen bitartez harekin tratatu izan ahal izatea. Horretarako, haien eskura jarriko dira sartzeko baliabideak, baita kasu bakoitzean zehaztutako sistema eta aplikazioak ere.</p> <p>Ildo horretatik, aipatutako Dekretua bertan behera lagatzeak ez dakar nahitaez IKS sistemaren desagerpena, baizik eta hau pasako dela Ingurumeneko Sailburuordetzak bere prozeduren tramitazio elektronikoa errazteko dituen kudeaketa elektronikoko beste</p>



	<p>aplikazioetako bat izatera. Eta hori, INGURUNET sisteman ingurumen organoaren prozedura guztiak garatuko diren arte.</p> <p>Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da espresuki irailaren 25eko 183/2012 Dekretua indargabetzea.</p>
<p>ARAUAREN XEDEAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irailaren 25eko 183/2012 Dekretua indargabetzea. • Aipatutako dekretua gaur egun dagoen behin-behineko bertan behera uzte egoerak erabiltzaileengan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sortzen duen segurtasun juridiko eza etetea. • Sistema edo aplikazio informatiko batzuek beste batzuegan duten EAEko organoen funtzioak betearazteko nagusitasunarekin amaitzea.
<p>EGON DAITEZKEEN ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK</p>	<p>Ordezko irtenbide erregulatzailerik posible gisa aurreikusi da Dekretu maila duen beste erregelamendu-arau bat ematea edo dagoen Dekretua aldatzea. Horren bidez, "ex novo" arautuko zen ingurumeneko administrazio-prozedurei dagokien administrazio elektronikoaren erabilera. Hala ere, gaiari buruzko estatuko oinarrizko lege-mailako araudia dagoenez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari dagokiona, estatu osoko esparruan derrigorrezkoak eta uniformeki aplikatzekoak diren administrazio elektronikoari buruzko hainbat xedapen jasotzen dituen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 2012ko martxoaren 10etik indarrean dagoen 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa dagoenez, gaurko datan, oraindik ez da aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legean dauden administrazio elektronikoari buruzko postulatueta egokitu, ez dute gomendagarritzat uzten aukera honengatik jotzea.</p> <p>Gainera, aipatzekoa da ez dela beharrezkoa erabiltzaileek Administrazio Publikoarekiko harremanetan aplikazio edo sistema informatiko bat erabil dezaten arautzen duen xedapena garatzea. Ingurumeneko Administrazioak jada bermatzen du interesdunek Administrazioarekin bitarteko elektronikoaren bitartez harremanak mantendu ahal izatea, haien eskura ipiniz kasu bakoitzean zehaztutako baliabide, sistema edo aplikazio informatiko eraginkorrak.</p> <p>Lehendik dagoen Dekretua eta araudia harmonizatzeko beharra egonik, Dekretua indargabetzeko arau-izaeraduneko neurri espezifiko bat sortzea ezinbestekotzat jotzen da, bestelako konponbide alternatiborik kontuan hartu ezinik.</p>